

Mixel Berhokoirigoin

«Laborantza Ganbara urratsa da Iparraldearen onarpenerako»

1952an sortua Gamarten (Nafarroa Beherea). Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakaria da. 2005eko urtarrilean Ganbara (Ainhize-Monjelson) abian jarri eta Frantziako Estatuaren tokiko prefetak auzitara eraman zuen. Estatuak legez kanpo ezarri nahi duen arren, proiektua zabalduz eta sendotuz joan da lau urte hauetan. Berhokoirigoinen eleak dira honen lekuko.

Mixel Berhokoirigoinek erran digunez, denbora asko eta bestelako gauzak egiteko ahala kendu dizkio EHLGko lehendakariaren karguak. Alta, eman ere asko eman dio: “Gauzak egiteko anbizioa –zentzu onean– eta konbikzioa eman dizkit proiektuak, berau eraikitzeko luzaz iharduki behar dela. Gure historiaren partaide xumeak gara, baina historia egiten ari gara. Oraino ez gara behar dugun heinera heldu, baina Ganbara bere tokia eta legitimitatea hartzen ari da. Aitzinatu dugu, bistan da, egungo egoera ez baita duela lau urtekoa. Baina, ez da aski egitea Ganbara egina izateko, egina gizarteari helarazi behar zaio”.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

**Urtarrilaren 29an Baionako epaitegi-
ra deitua zara. Prefetak EHLG auzita-
ra eraman zuen, legez kanpokoa dela
argudiatuz. Aferak luzaz iraun du.**

Ganbara sortu genuelarik bagene-
kien hau guztia gertatuko zela,
afera Estatuarekin hamar urtez
izan genuen tira-biraren segida da.
Proiektua herri mugimenduaren
eskaera izan zen. Ganbara gizarte-
aren gehiengoaren sostenguz
–eta Estatuaren mesprezuarekin–
sortu zen.

EHLG irekia eta zabala da, alta.

Bai. Ganbara egitura publikoa da,
laborarien bozen bidez izendatua
eta bere aurrekontua zergen bidez
osatua. Estatuak egitura ezagutzen
du: diru publikoa nola biltzen
dugun eta zertan baliatzen dugun,
baita zer-nolako laborantza politika
daramagun ere. Ongi ezagutzen du,
baina ez du onartu nahi.

**Beste zerbaitek kezkatzen du Esta-
tua, antza denez.**

Baiki. Laborantza ekonomikoki
autonomoa eta iraunkorra lantzeak.
Departamenduan nahiz Estatuan
inposatu nahi diguten ereduak labo-
rantzaren kontraesanean dago, gure
filosofiaren kontra. ELB (Euskal
Laborarien Batasuna) sortu zenetik
–25 urte luze– hori da gatazkaren
muina. Paueko Laborantza Ganbe-
rak edo Kontseilu Nagusiak labo-
rantza iraunkorraren ideia onartzen
dute, baina salbuespen gisara: labo-
rari batzuek laborantza biologikoa
egitea eta hori laborantzaren argazki
edergailu gisa agertzea. Gure nahia
ez da gune bereziak sortzea, alterna-
tiba orokorra sustatzea baizik.

**Zu zeu espetxeratzea posible ikusten
al duzu? Ganbara ixtea, berriz?**

Nihaurek 15.000 euro arteko isuna
jaso dezaket, baita urte bateko pre-
sondegia zigorra ere. Ganbara hetsi?
Estatuak badaki ezin duela nahi duen
guztia egin, Ganbarak gizartearen
berak nahi baino pisu gehiago duela.
Legez egin dezake, baina auzia tes-



tinguru sozial eta instituzionalean kokatu behar da. Gizartea irekia da eta epaileak gizartean bizi dira. Dena dela, gure ekimenaren helburua ez da epaileengan eragitea, gizarte mugimenduak ekimenaren legitimatate osoa agertu nahi du, baita Ganbararen aurka doan guztia ez dela onargarria adierazi ere.

Nola ulertu behar dugu gatazka hau?

Gure eskakizunak Ipar Euskal Herriaren ezagutza ofiziala planteatu du, geure instituzioaren gaia eta beharra gizarteratu ditu, Laborantza Ganbara egitura publikoa baita. Ganbara urrats bat da nolabait Iparraldearen onarpenari buruz. Iparraldearen ezagutza eta egituratzeko gutxieneko horrek Estatua asaldatzeko du eta hortik dator bere ukapena. Estatuak Iparraldearentzat onartzen dituen egiturak ez dira erabakigarriak: Garapen Kontseilua edo Hautetsien Kontseilua, esaterako. Hitz egiteko dira baina ez erabakiak hartzekoak. Ganbararen izanak Estatua trabatzen du eta gainera prefetak izenarekiko mesfidantzak ditu. Baina izena gure borrokaren segida da.

"Izena" Ganbararen "izana" trabatzeko aitzakia da prefetarentzat, nolabait.

Bai. Alabaina, izanaren funtsak balio du. Gu Euskal Herritik kanpo mintzatu garenean, ekimenaren funtsa azaldu gabe ere, EHLGren izana baino printzipio demokratikoa da ezbaian jartzen duguna. Hau da, elkarte batek eskubide osoa du bere lurraldearentzat beharrezkoa diren bitartekoak eskatzeko eta berauek egokien atzematen dituen maneran erabiltzeko. Demokrazia ez da jukatzen gauzak ondo direlarik, problemak sortzen direnean baizik. Eskakizunak sortzen direlarik beraiei erantzuteko manerarengatik epaitzen da demokrazia.

Auziak edota afera honek laborantza mundua gaingitu du.

EHLGren helburua laborantzaren oinarria segurtatzea da, alta, Estatuak probokatu du bizi dugun egoera: eskakizunaren errefusapena eta mehatxua. Estatuak gure iniziatibari konfrontazioaren dimentsioa eman dio. Ofizialki ez duela Ganbara onartzen esaten du, hautetsiei gutunak

igortzen dizkie Ainhizera ez etortzeko. Harago ere joan da: adibidez, Lizeoan ari den irakasle teknikari bati formakuntza ikastarora etortzeko galdatu diogu, eta Akitaniako prefetak idatzi digu eskaera ez egiteko aginduz. Guk ematen ditugun urrartsei oraindik dimentsio handiagoa ematen diete. Konfrontazioa nahi badute, bada, gu sartuko gara, beste biderik ez baitigute uzten. Guk legitimazioa dugu gizartearen sostengua baitugu, gurea konfrontazio demokratikoa dela diogu. EHLG sostengatzen dutenen erdia ez dira laborariak: batzuentzako hurbiltasunezko gauza da, beste batzuentzako, laborantza iraunkorra eta ekologikoa ere du gustagarria da. Bestetzuek Estatuarekiko konfrontazioan ari delako sostengatzen dute edo erakuntza nazionalerako ekimena delako. Hitz batean Ganbara Euskal Herriaren eraikuntzan kokatzen da, eta horrek ematen dizkigu eginbidea eta indarra. Estatuak gogoetatu behar du, publikoki ziur agertzen baita, milimetro bat mugitzen ez den egitura bezala, baina gu segur gaude zalantzan ari dela, ez dakiela noraino eman gure kontrako urratsa, ez dakiela zangoa non pausatu.

Auzia aitzin halere, urtarilaren 17an, EHLGren sorreraren IV. urteurrena ospatuko duzue, baita urteko Biltzar Nagusia burutuko ere.

EHLGren lehen eginkizuna laborantza da. Gizarteak ematen dion errekonozimendua lan horren ondorioz heldu da. Gu ez gara gizartearentzat interesgarria den arabera lanean ari, alderantziz, laborantzaren alorretik abiatzen gara gaurko problematikak ezagutzeko eta eman beharreko erantzunak emateko. Aurtengo urtarilean sail berriak lantzen hasi ginen norabide horretan, horietako azpimarragarrienak uraren eta proteina-aren gaiak dira.

Azaldu iezaguzu proteinarena, otoi.

"Eskakizunak sortzen direlarik beraiei erantzuteko manerarengatik epaitzen da demokrazia"



"Estatua publikoki ziur agertzen da, baina gu segur gaude zalantzan ari dela. Ez daki gure kontrako urratsa noraino eman, ez daki zangoa non pausatu"

Proteinaren autonomiaz lan bat egin dugu. Abereek, pertsonak bezala, energia eta proteina behar dituzte elikatzeko. Hemengo laborantza gehienbat hazkuntza denez —ardia eta behia— hazkuntza intentsifikatzen doan heinean proteinen dependentzia gero eta handiagoa da, baserriak gero eta intentsiboagoak diren neurrian laborariak gero eta proteina gehiago erosi behar du merkatuan. Horrek krisi ekonomiko garaian gure ahulezia areagotzen du. Proteinen iturria soja da eta gehiena transgenikoa. Guk mozkinen sor-markaren araudia errespetatu behar dugu, ez dugu elikadura mota hori onartzen.

Sojaren ordezkorik ba al dago?

Proteinari buruzko dependentzia tipitzeko sistema berrikusi dugu. Ilar biribilekin ari gara esperimentatzen abereen bazkatzeko. Baserritarak proteina kanpoan erosi behar badu ere, emeki-emeki, beste proteina mota batzuk ari gara lantzen, beste belar mota batzuk ezagutzen ari gara hemengo lurretan lantzeko.

Krisi ekonomikoak laborantzan eragiten du eta laborantza txikian areago. Krisiak eragiteko modu eta arrazoi bat baino gehiago dago. Europan ezagutu diren laborantza politikak

aldatzen ari dira. Orain arteko politikaren logika laborantzako mozkinak eta prezioak antolatzea zen. Prezioak ez ziren libreak, baina ekoiztu beharreko kopuruak finkoak ziren. Hitz batean, politika interbenzionistak izan dira. Azken bi urteotan berriz merkatua areago liberalizatu da. Laborantzako ekoizpenak beste edozein industriakotzat jotzen dira, politika honek mozkinak edo produktuak merkatu librean finkatzea nahi du. Oinarria hori da. Krisiaren lehen ondorioa zerealen prezioa goiti joan izana da. Hemengo laborantza hazkuntza da, gu ez gara zerealeko ekoizleak, zerealeko industriarentzat krisia ona da, krisia, batez ere, hazkuntza ari diren laborariarentzat da, eta bereziki mendiko baserriak dituztenentzat.

Ohiko arrangura mendiko laborantzaren.

Lur gutxi izanik bazkatzeko zerealak mendiko laborariak erosi behar dituzte. Diru laguntzak ukanik ere, hazkuntza inguruko problema ez da konpondua. Paueko Laborantza Ganberako ordezkariak hitzetan "krisiak agertu du laborari batzuk ahulak direla biharko ekonomian ihardukitzeko, ez duela balio gazteak instalatzea egitura tipietan". Krisia laborantza berregituratzeko baliatu nahi dute, baina baserri tipietan finkatzen diren laborari gazteek biharko egoera konpetitiboan ez dutela aterabiderik erranez. Guk, aldiz, lurraldea hartzeko eta lantzeko laborari kopuru handia behar dela diogu, hobe direla hiru baserri tipi handi bat baino. Duela zortzi urte Paueko Ganberako lehendakariak hau esan zidan: "Ez da posible laborari asko izan eta zoriontsu izan aldi berean". Guk, berriz, baserri tipiak eta baserri gazteak diren lurraldeetan bizitzeko soziala dagoela diogu, herria bizi dadin behar-beharrezkoa. Haiek beren filosofiarekin segitzen dute eta guk geurea atxikitzen dugu. ■

JO TA KE | EKOIZPENAK



Jo Ta Ke Ekoizpenak lehen aldiz Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan.
Eta ezin duzu galdu:

Sutagar 20 URTE

20. URTEBETETZE IBSPAKIZUN BIRA

ABENDUAK 19 L'HOSPITALET SALAMANDRA
ABENDUAK 26 DURANGO PLATERUENA
URTARRILAK 5 DONOSTI ROCKSTAR

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com

